



1. SOBRE EL INCENTIVO FISCAL Y SU NORMATIVA	4
1.1. ¿Por qué se da la consideración de incentivo a esta deducción fiscal?	4
1.2. ¿Qué normativa regula esta deducción?	4
1.3. ¿De qué manera interviene el Departamento de Cultura en esta deducción?	4
1.4. ¿Interviene el Departamento de Cultura en la deducción de las services o en la deducción de las empresas que participen en la financiación de producciones españolas extranjeras?.....	4
2. LA DEDUCCIÓN	5
2.1. ¿Quién puede aplicarse esta deducción?.....	5
2.2. ¿Qué deducción se puede aplicar la productora de una producción española?	5
2.3. ¿Hay algún límite al importe de la deducción que la productora de una producción española o una services puede practicar en su correspondiente declaración-liquidación del impuesto?.....	5
2.4. En el caso de productoras de producciones españolas de películas cinematográficas y otras obras audiovisuales, ¿cuándo el beneficiario puede aplicarse la deducción?	6
2.5. ¿Qué pasa cuando la productora declara una deducción superior a la que finalmente queda resuelta por el Departamento de Cultura?	6
3. LA BASE DE DEDUCCIÓN para productoras que se acogen al art. 65.1.	7
3.1. ¿Qué es la base de deducción?	7
3.2. ¿Cómo se calcula la base de deducción en el caso de productora de una producción española?	7
3.3. ¿Qué gastos forman parte de la base de deducción?.....	7
3.4. ¿Cuáles son las especialidades y límites del coste de producción?	9
3.5. ¿Se pueden considerar los gastos financieros y los impuestos indirectos gastos que forman parte de la base de deducción?.....	9
3.6. ¿Qué gastos de amortización forman parte de la base de deducción?	9
3.7. ¿Cómo considerar los gastos de seguros, asesoría jurídica, notaría...?	9
3.8. ¿En qué período de tiempo deben haberse realizado los gastos?	9
3.9. ¿Qué gastos se consideran no incluidos?.....	10
3.10. ¿Cómo hay que considerar los gastos de empresas vinculadas?.....	10
3.11. ¿Cómo se consideran los gastos subcontratados?.....	11
3.12. ¿Qué consideración tienen los gastos de desarrollo?.....	11
3.13. ¿Qué se entiende por coste de producción de la obra audiovisual?	11
3.14. ¿Qué se entiende por coste total de la obra audiovisual?.....	11



3.15.	¿Cómo afectan las ayudas recibidas al proyecto audiovisual a la determinación de la base de deducción?	12
4.	GASTO TERRITORIO NAVARRO.....	12
4.1.	¿Qué objetivo se persigue con la territorialización del gasto?	12
4.2.	¿Qué gastos se consideran realizados en territorio navarro?	12
4.3.	Esquemáticamente, ¿qué se entiende por gasto realizado en territorio navarro?	14
5.	PROCEDIMIENTO.....	15
5.1.	¿Qué normativa regula el procedimiento que debe seguir la productora para tener derecho a la deducción?	15
5.2.	¿El procedimiento a seguir para obtener el derecho a deducción en qué consiste? .	15
5.3.	¿Cuál es el objeto de la solicitud del informe previo o prevalidación?.....	15
5.4.	¿Cómo solicitar el informe previo?	15
5.5.	¿Qué contenido recogerá el informe previo?	16
5.6.	¿Cuándo se emite el informe?	16
5.7.	¿Cuál es el objeto de la validación posterior o postvalidación?	16
5.8.	¿Cuándo se presenta la solicitud de validación posterior?.....	16
5.9.	¿Qué documentación se debe aportar para la validación posterior?.....	17
5.10.	¿En qué plazo queda resuelta la solicitud de postvalidación?.....	19
5.11.	¿Qué pasa si la base de deducción determinada en la fase de validación posterior no coincide con el importe deducido en la autoliquidación?	19
5.12.	¿Qué pasa si el contribuyente suspende el plazo de resolución de la postvalidación para aportar nuevas justificaciones?	19
5.13.	¿Afecta la emisión del informe previo a la financiación de la productora?.....	19
5.14.	¿Cómo acreditar que la producción es española?	19
6.	INTENSIDAD DE LA AYUDA	19
6.1.	¿Qué se entiende por intensidad de la ayuda en el incentivo fiscal?	20
6.2.	¿Hay algún límite al importe de la deducción?	20



1. ZERGA PIZGARRIARI ETA HAREN ARAUDIARI BURUZ

1.1. Zergatik jotzen da pizgarritzat zerga kenkari hori?

Ikus-entzunezkoen industriak sustatu eta lagundu nahi dituen **neurri fiskala** delako, “Nafarroa-S3” planean garapen ekonomikorako ezarritako **lehentasun estrategikoen** arabera.

1.2. Zer araudik arautzen du kenkari hori?

- Nafarroako Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 65. artikulua.
- 69/2021 Foru Aginduak, maiatzaren 7koak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emanak.

1.3. Nola esku hartzen du Kultura Departamentuak kenkari horretan?

Nafarroako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 65.1. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuko Zuzendaritza Nagusiak alde aurreko txosten bat eginen du proiektuak kenkaria egiteko betekizunak eta baldintzak betetzen dituen jakiteko, eta, ondoren, kenkari oinarria zehazten duen ebazpena eman eta jakinaraziko du.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren maiatzaren 7ko 69/2021 Foru Aginduak zehazten ditu bi prozedurak aplikatzeko irizpideak eta modua.

1.4. Kultura Departamentuak esku hartzen al du atzerriko produkzioen finantzaketan parte hartzen duten zerbitzuen kenkarian edo enpresen kenkarian?

Ez. Nafarroako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeak ezartzen du Kultura Departamentuak 65.1 artikuluan araututako kasuan bakarrik esku hartuko duela (film luze zinematografikoetan eta fikziozko, animazioko edo dokumentaleko ikus-entzunezko telesailetan inbertitzen duten produkzio-etxeak), ez gainerakoetan.



2. KENKARIA

2.1. Nork aplika dezake kenkari hori?

Kenkaria espainiar film zinematografikoak edo ikus-entzunezko beste lan batzuk (fikziokoak, animaziokoak zein dokumentalak) ekoizten dituzten ekoiztetxe nafarrek aplikatzen ahalko dute. (65.1 art.)

Kultura-lana direla egiaztatzen duten atzerriko film zinematografikoak edo ikus-entzunezko beste lan batzuk ekoizteko **zerbitzuek**. (65.2 art.)

Sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, espainiar film zinematografikoen eta ikus-entzunezko beste lan batzuen (fikziozkoak, animaziokoak eta dokumentalak) ekoizteko finantzazioan parte hartzen dutenek.
(65. bis art.)

2.2. Zer kenkari aplika dakioke ekoizpen espainiar baten ekoizleari?

Kenkaria Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 65.1. artikuluan dago araututa. Aplika daitekeen kenkaria **kenkariaren oinarriaren % 45ekoa da, eta % 50era irits daiteke ekoizpen hauetako kenkari oinarriaren lehen hiru milioietan:**

- Jatorrizko bertsio bakarra euskarazkoa bada
- Zuzendaritzat bakar-bakarrik emakumezkoak badituzte
- Dokumentalak badira
- Animaziokoak badira
- Inolako lanik zuzendu edo kozuzendu ez duen pertsona baten zuzendaritzapeko ekoizpena bada
- Film laburrak badira

2.3. Ba al dago mugarik ekoizpen espainiar baten ekoiztetxe batek edo zerbitzari batek zergaren aitorpen/likidazioan egin dezakeen kenkariaren zenbatekoan?

Ekoizleek **bi zenbateko hauetatik txikiena den adinako kenkaria egiten ahalko dute** gehienez:

- 5.000.000 €
- Laguntzen eta kenkariaren batura ez da izanen ekoizpen-kostuen % 50 baino handiagoa.

Artikulu horretan arautzen diren kenkarien zenbatekoa, zergadunak ekoizpen bakoitzarengatik jasotako gainerako laguntzak gehituta, ez da kostu diruz lagungarrien ehuneko 50 baino handiagoa izanen. Halere, muga hori honela handituko da kasu hauetan:

- a) Ehuneko 85, 1.000.000 euro baino gutxiagoko ekoizpen kostua duten film labur edo proiektuetarako.



- b) Ehuneko 80, zinema aretoetan proiektatuz komertzialki ustiatzeko, gehienez ere bi film luze bakarrik edo beste norbaitekin zuzendu dituen zuzendari baten ekoizpenak direnean, haien ekoizpen aurrekontua 1.500.000 eurotik beherakoa bada.
- c) Ehuneko 80, osorik euskaraz filmatutako ekoizpenak direnean.
- d) Ehuneko 80, 33ko desgaitasuna edo handiagoa, organo eskudunak aitortua, duten pertsonak bakarrik zuzendutako ekoizpenak direnean.
- e) Ehuneko 75, emakumezko zuzendariak bakarrik egindako ekoizpenak direnean.
- e) Ehuneko 75, kultur eta arte balio berezia duten eta finantzaketa laguntza berezia behar duten ekoizpenak direnean, foru agindu bidez edo dagozkien laguntza deialdietan ezartzen diren irizpideen arabera.
- g) Ehuneko 75, dokumentalak direnean.
- h) Ehuneko 80, ekoizpen kostua 5.000.000 eurotik beherakoa duten animazio lanak direnean.
- i) Ehuneko 60, Europar Batasuneko estatu batek baino gehiagok finantzatzen eta Europar Batasuneko estatu bat baino gehiagoko ekoizleen parte-hartzea duten mugaz gaindiko ekoizpenak direnean.
- j) Ehuneko 60, Iberoamerikako herrialdeekin egindako nazioarteko koprodukzioak direnean.

2.4. Film zinematografikoen eta ikus-entzunezko beste lan batzuen ekoizpen espainiarren ekoiztetxeen kasuan, noiz aplika dakioko onuradunari kenkaria?

Ekoiztetxeak ekoizpenaren eskakizunak eta baldintzak betetzeari buruzko **aldez aurreko txostena eskatzen duenetik**, sortutako kenkaria kontsignatu dezake aitorpen/likidazioan.

Kenkaria lanaren ekoizpena burutzen den zergaldian sortutzat joko da, baina lanaren ekoizpena bi zergalditan edo gehiagotan egiten bada, onuradunak ordainketak egiten diren aldietan eta horien zenbatekoan aplikatzen ahalko du kenkaria.

2.5. Zer gertatzen da ekoiztetxeak Kultura Departamentuak azkenean ebatzitakoa baino kenkari handiagoa aitortzen badu?

Zergadunak, behin betiko kenkaria jakinarazten zaion zergaldiko kuotarekin batera, bidegabe aplikatutako kenkariari dagokion kuota osoa eta berandutze-interesak sartu beharko ditu.



3. 65.1 artikuluari heltzen dioten ekoizleentzako KENKARIAREN OINARRIA.

3.1. Zer da kenkariaren oinarria?

Kenkariaren ehunekoa aplikagarri zaion zenbatekoa da.

3.2. Nola kalkulatzen zaio kenkariaren oinarria ekoizpen espainiar baten ekoiztetxeari?

Nafarroan egin den gastuaren arabera da.

- Gastuaren ehunekoa % 40 edo handiagoa bada, kenkariaren oinarria produkzioaren kostu osoarekin bat etorriko da, muga eta espezialitate batzuekin.
- Gastuaren ehunekoa % 40 edo txikiagoa bada, kenkariaren oinarria Nafarroako lurraldean eginiko gastuak 0,4z zatitzearen emaitza izanen da.

Koprodukzioa bada, banaka zehaztuko da koproduktore eskatzailearentzat, kontuan hartuta zer inbertsio egin duen, zer laguntza jaso duen eta zer gastu egin duen Nafarroan.

3.3. Zer gastuk osatzen dute kenkariaren oinarria?

Ekoizpen kostua abiapuntutzat hartuta, gastu jakin batzuk mugatzen dira. Bestalde, kenkariaren oinarrian ekoizpen kostuaren parte ez diren beste gastu batzuk ere sartzen dira, hala nola **lanaren publizitate edo sustapen-gastuak edo auditoretza txostenaren gastuak**.

69/2021 Foru Aginduaren 1. artikulua arabera, honako hauek osatuko dute kenkariaren oinarria:

a) EKOIZPEN KOSTUA, kopia estandar edo master digitala lortu arte, honako berezitasun eta muga hauekin:

1) **Ekoizle exekutiboaren ordainsaria**, zeinak ez duen gainditzen ahalko muga hauetatik handiena:

- a') Ekoizpen kostuaren % 10.
- b') 100.000 euro.

(bi mugetatik handiena aplikatzen da)

Kostutzat hartuko da, bakar-bakarrik, pertsona fisikoek egindako ekoizpen exekutiboa, edo pertsona juridikoek egindakoa, baldin eta azken horiek ekoizpen exekutiboa badute sozietatearen berariazko helburutzat, beste batzuk alde batera utzi gabe.



Baldin ekoiztetxearen eta ekoizle exekutiboaren artean merkataritza harremana badago, kontratuarekin batera dagokion faktura aurkeztu beharko da; eta, harremana lanekoa bada, kontratuarekin batera dagokion nomina aurkeztu beharko da, non berariaz adieraziko baita Gizarte Segurantzaren araubide orokorra.

Baldin ekoizle exekutiboaren edo beste langile batzuen kontratua orokorra baldin bada, balio duelako ekoiztetxeak gauzatzen dituen hainbat ekoizpen zinematografikotarako edo ikus-entzunezko hainbat sailetarako, kontratu horren kostua hainbanatuko da, ekoizpen bakoitzean benetako parte-hartzea zein den, horren arabera.

Ekoiztetxeko plantillako langileek berariazko kontraturik gabe egiten badituzte ekoizle exekutiboaren eginkizunak, gastu orokorrei egotziko zaie haien ordainsaria, aurreko paragrafoan ezarritako hainbanatze baldintza bereberekin.

2) Gastu orokorren zenbatekoa; ekoizpen kostuaren % 10 gehienez ere.

Kenkariaren xedeko lanerako berariazko lan kontraturik ez duten ekoiztetxeko langileen gastua gastu orokorrei egotziko zaie.

Gerta daiteke plantillako zenbait langilek berariazko lan kontratua izenpeturik izatea –esleitutako lan kategoriaren arabera– ekoiztetxearen ikus-entzunezko hainbat lanetan parte hartzeko. Langile horien gastua lan bakoitzean duten benetako partaidetzaren arabera hainbanatuko da, eta teknikarien gastu gisa egotziko da.

3) Filmaketa epearen barruan filmaketarekin lotura zuzena duten lokaletan edo instalazioetan egindako **hornidura gastuak**, hala nola urari, gasari edo elektrizitateari dagozkionak, baldin eta dagozkion kontratuak aurkezten badira lotura hori justifikatzeko. Gastu horiek ekoiztetxearen egoitza sozialean egiten direnean, eta egoitza hori ez denean filmaketarekin zuzenean lotutako lokala, gastu orokorrei egotziko zaizkie.

(animazioko ikus-entzunezko lan bat bada, egoitza soziala filmaketari lotutako lokaltzat hartuko da, eta, beraz, egoitza sozialean sortutako gastu mota horiek ez dira gastu orokorretara egotziko.)

4) Ikus-entzunezko lana egitean ekoiztetxearen jabetzako ekipamenduak eta material teknikoa erabiltzen den denborari dagokion **amortizazio** kengarriaren kostu fiskala.

5) Jatetxe, ostalaritza, bidaia eta lekualdatze zerbitzuei dagozkien gastuak, bai eta ikus-entzunezko lana filmatzean sortutako **telefono eta Internet gastuak** ere. Filmaketa hasi aurretik eta burutu ondoren, gastu horiek gastu orokorrei egotziko zaizkie.

b) Ikus-entzunezko lanaren **PUBLIZITATE ETA SUSTAPEN gastuak**; ekoizpen kostuaren % 40 gehienez ere.





Inbertsioaren zenbatekotzat hartutako gastuek tarte honetan eginak behar dute: **filmaketari ekin baino 24 hilabete lehenagotik hasi eta filmaketa bukatu ondoren 24 hilabete igaro arte.**

Filmaketa zer egunetan hasi eta zer egunetan bukatu den zehazteko, Zinemagintzaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) ezarritako irizpideei jarraikiko zaie.

Foru aginduak ez ditu espresuki aipatzen garapen gastuak, baina gastu horiek produkzio kostuaren parte izanen dira, baldin eta ikus-entzunezko lanari egoztekoak badira eta ezartzen diren epeen barruan egin badira. Dirulaguntza jaso badute, dirulaguntzaren zenbatekoa deskontatu beharko da.

3.9. Zer gastu ez dira sartzen?

3.4. galderan adierazitakoez gain, ez dira inbertsioaren zenbateko gisa zenbatuko **finantza gastuak** eta **zeharkako zergak**.

Sozietateen gainerako Zergari buruzko Foru Legearen 67. artikulua berariaz baztertzen ditu kenkari oinarriaren zenbaketatik kenkari guztietan, oro har. Kreditu fiskala egituratzeko gastuak ere ez dira sartzen, ez baitira ekoizpenaren ziklotik eratortzen.

3.10. Nola hartu behar dira kontuan enpresa lotuen gastuak?

Inbertsioa denean pertsona edo erakunde lotu bati ondasunak edo zerbitzuak erostea, Sozietateen gainerako Zergari buruzko Foru Legearen 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, **erakunde lotuan ondasun edo zerbitzu horiek zer kostu duten**, horren arabera zehaztuko da inbertsioaren zenbatekoa, baldin eta behar bezala justifikatzen bada.

Erakunde lotuek izan duen kostua justifikatu beharko da.



3.11. Nola hartzen dira kontuan azpikontrataturako gastuak?

Aurreko apartatuan ezarritako mugak eta berezitasunak azpikontrataturako gastuei ere aplikatuko zaizkie.

3.12. Nola hartzen dira kontuan garapen gastuak?

Garapen faseari dagokionez, foru aginduak ez ditu espresuki aipatzen garapen gastuak, baina **produkzio kostuaren parte izanen dira, ikus-entzunezko lanari egotzi ahal bazaizkie.**

Horregatik, kenkariaren oinarrian sartuko dira gastu horiek **foru aginduak ezartzen dituen epeen barruan egin badira.** Dirulaguntza jaso badute, dirulaguntzaren zenbatekoa deskontatu beharko da.

3.13. Zeri esaten zaio ikus-entzunezko lanaren produkzio kostua?

Ikus-entzunezko lanaren produkzio kostutzat hartzen dira ikus-entzunezko lana sortzeko, ekoizteko edo prestatzeko beharrezkoak diren kostu egozgarri guztiak, lanean aurreikusitako moduan jardun ahal izateko. Produkzio kostuan sartzen dira ikus-entzunezko lanaren erregistro eta formalizazio kostuak, bai eta kontabilitate araudiaren arabera produkzio kostutzat har daitezkeen finantza gastuak ere.

Ez dira inola ere produkzio kostuaren parte merkaturatze-gastuak, hala nola publizitatea eta sustapena, ez eta egitura gastuak ere.

Egitura gastutzat hartzen dira ekoizpenaren mende ez dauden enpresaren administrazio edo zuzendaritza gastuak. Besteak beste, auditoretza txostenaren gastuak.

Produkzio kostua zehazteko, gastu guztiak hartuko dira kontuan, harik eta ikus-entzunezko lana adinaren arabera kalifikatzen den arte.

3.14. Zeri esaten zaio ikus-entzunezko lanaren guztizko kostua?

Kontzeptu hauen batura izanen da ikus-entzunezko lanaren guztizko kostua:

- **Ekoizpenaren kostua**, kopia estandarra edo master digitala lortu artekoa, **publizitate eta sustapen gastuak**
- erakusteko edo emateko **egokitzapen-gastuak**
- **lana babesteko gastuak**
- **kopiak egiteko gastuak**
- ikus-entzunezko lanaren kostua egiaztatzeko **auditoretza txosten berezia**

denbora eta zenbateko mugak kontuan hartu gabe.



Nazioarteko koprodukzioak badira, ikus-entzunezko lanaren kostuak barne hartuko du atzerriko zatia.

3.15. Nola eragiten dute ikus-entzunezko proiektuak jasotako laguntzek kenkariaren oinarria zehazteko?

Dagokion kenkari ehunekoa kalkulatzeko, kenkariaren oinarria honela txikituko da: zerga pizgarriaren xede den ikus-entzunezko lanagatik jasotako laguntzak kenduko zaizkio, kenkariaren oinarriaren gastuak finantzatzen badituzte.

4. NAFARROAN EGINDAKO GASTUA

4.1. Zer helburu lortu nahi da gastua lurraldearen arabera sailkatuz?

Espero da gastua lurraldearen arabera sailkatzeko irizpide berriek **Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea eta hari lotutako sektoreak indartuko dituztela**, aberastasuna Nafarroan sor dadin.

Horregatik, alde batera utzi dira zerga kontsultetan ezarritako lurralde irizpideak, eta ordeztu egin dira, oro har: zerbitzuak ematen edo ondasunak entregatzen dituen pertsona edo erakundeak Nafarroan duen zerga egoitzaren irizpidea erabiliko da.

4.2. Zer gastu jotzen dira Nafarroako lurraldean egindakotzat?

Nafarroako lurraldean egindako gastuak joko dira hauek:

- a) Nafarroatik egiten diren zerbitzuak, baldin eta zerbitzu horiek ematen dituenak Nafarroako lurraldean badu egoitza fiskala.
- b) **Nafarroako lurraldean erabilitako ondasunak erosteari** dagozkion gastuak, **egoitza fiskala Nafarroan duten pertsonen eta erakundeen erosi zaizkienean**. Helburua da ondasuna Nafarroan egoitza duen pertsona edo erakunde bati erostea eta, gainera, Nafarroan erabiltzea. Bi baldintzak bete behar ditu.
- c) Ibilgetu materialaren edo ukiezinaren elementuetatik eratorritako **amortizazio gastuak**, baldin eta **Nafarroako lurraldean benetan erabiltzen bada eta ibilgetua ematen duenak egoitza fiskala lurralde horretan badu**. Ondasunak zati batean erabiltzen badira Nafarroako lurraldean, Nafarroan egindako gastutzat joko da gastua, lurralde horretan erabili den proportzioan.

“Entrega” kontzeptua Hitzarmen Ekonomikotik atera da, eta han adierazten da zer den entrega. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, 21. artikuluan jasotzen da:

Nafarroan egindakotzat joko dira eragiketa hauek:

A) Ondasun-entregak.

- 1. Entrega egiten duenak egin edo eraldatutako ondasun higigarri gorpuzdunen entregak, subjektu pasiboaren fabrikazio edo eraldaketa zentroak Nafarroako lurraldean daudenean.



Subjektu pasibo berak fabrikazio edo eraldaketa zentroak dituenen bai Nafarroako lurraldean bai lurralde erkidean, entregatutako ondasunen fabrikazio edo eraldaketaren azken prozesua Nafarroan egiten bada.

2. Entregetan elementu industrialak instalatzen badira Nafarroatik kanpo, ulertuko da Nafarroako lurraldean eginak direla prestaketa eta fabrikazio lanak lurralde horretan eginak badira eta instalazio edo muntatze lanen kostua ez bada kontraprestazioaren kostu osoaren ehuneko 15 baino handiagoa.

Era berean, ulertuko da ez direla Nafarroako lurraldean eginak elementu industrialen entregak, lurralde horretan instalatzea barne hartzen dutenak, elementu horien prestaketa eta fabrikazio lanak lurralde erkidean eginak badira eta instalatu edo muntatze lanen kostua ez bada kontraprestazioaren kostu osoaren ehuneko 15 baino handiagoa.

3. Energia elektrikoaren ekoizleek egindako entregak, energia sortzen duten zentroak Nafarroako lurraldean kokatuta daudenean.
4. Ondasun higigarri gorpuzdunen gainerako entregak, eskuratzailaren esku Nafarroako lurraldean jartzen direnean. Ondasunak garraiatu behar direnean eskuratzailaren esku jartzeko, ulertuko da entregak eginak direla ondasunak bidalketa edo garraioa hasten denean dauden tokian.
5. Ondasun higiezinaren entregak, ondasun horiek Nafarroako lurraldean daudenean.

Laburbilduz:

Hornitzailea fabrikatzailea bera bada, entrega Nafarroan egin dela ulertuko da fabrikazio zentroa Nafarroan badago. Eta zentro bat baino gehiago baditu, azken eraldaketa prozesua Nafarroan egiten bada.

Instalazioa behar duen ondasuna bada, entrega Nafarroan egin dela ulertuko da fabrikazioa Nafarroan egin bada eta Nafarroatik kanpoko instalazioa ez bada guztizkoaren % 15 baino handiagoa.

Hornitzaileak fabrikatu ez duen ondasun bat entregatzen bada, eroslearen eskura Nafarroan jartzen denean, eta garraiorik behar bada, garraioa Nafarroatik abiatzen bada.

Eta higiezinaren entregak, Nafarroan badaude.

Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, Nafarroan egindako gastutzat hartuko dira honako hauek:

- a) Lan araubideko langileen soldatak ordaintzearen ondoriozko gastuak, baldin eta lanak edo zerbitzuak Nafarroan ematen badira. Lanak edo zerbitzuak zati batean egiten badira Nafarroako lurraldean, ulertuko da, kontrakorik frogatu ezean, ezen zerbitzuak Nafarroan egiten direla, baldin eta langilea atxikirik dagoen lantokia lurralde horretan badago.

Telelanaren kasuan, Nafarroan egindako gastutzat joko telelanean ari den pertsonak egoitza fiskala Nafarroan duenean.



Langileen soldaten gastuak Nafarroan egindakotzat joko dira, lana Nafarroan egiten bada. Lurralde batean baino gehiagotan egiten bada, Nafarroako gastua izanen da langilea Nafarroako lantoki bati atxikirik badago (bi kasuetan, langileen atxikipenak Nafarroan sartzen dira).

Telelanaren kasuan, argitzen da Nafarroan egindako gastutzat joko dela telelanean ari den pertsonak egoitza fiskala Nafarroan badu. Telelanaren kasua ez dago espresuki araututa Hitzarmen Ekonomikoan, eta, beraz, kenkariaren ondorioetarako, gastua Nafarroan egindakotzat joko da telelana egiten duenak egoitza fiskala Nafarroan badu.

Hau da, Nafarroako gastua da diru-sarreraren atxikipena Nafarroan egiten zaien langileen gastua.

Ez da beharrezkoa zerbitzuak Nafarroako IFK edo NAN batek ematea. **Lan harremana bada, lotura puntua lana Nafarroan egitea da.** Lanaren zati bat Nafarroan egiten bada, **gastua Nafarroan egin dela joko da langilea Nafarroako lantoki bati atxikita badago, langilea nafarra izan edo ez. Telana denean bakarrik hartuko da kontuan langilearen helbide fiskala.**

b) **Ur, gas edo elektrizitate horniduraren ondoriozko gastuak, Nafarroako lurraldetik jartzen badira eskuratzailaren esku** (kontagailua edo hargunea bertan dagoela kontuan hartuta).

c) **Aseguruen ordainketatik** eratorritako gastuak, arriskua edo konpromisoa Nafarroako lurraldean kokatzen bada. Ondorio horietarako, arriskua Nafarroako lurraldean dagoela ulertuko da, bat etorritzat Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legean aseguru primen gaineko zergarako ezarritako arauekin.

d) Ondasun higiezinaren erabilera edo errentamenduaren erabilera lagatzearekin zerikusia duten gastuak, ondasun horiek Nafarroako lurraldean badaude.

e) **Ostalaritzako eta jatetxeetako** gastuak, Nafarroako lurraldean kokaturiko establezimenduetan egiten bada zerbitzua.

e) letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko catering enpresek egindako zerbitzuen gastuei.

Aurreko apartatuetan ezarritako kokapen irizpideak **ekoiztetxeak egindako gastuei aplikatuko zaizkie, bai eta azpikontratatu beharreko gastuei ere.**

Azpikontratazioetan, gastua lurraldearen arabera sailkatzeko irizpide berberak aplikatu behar dira, hau da, gastua ekoiztetxeak zuzenean egiten duenean aplikatzen diren berberak izanen dira, azpikontrataturako enpresaren eta langilearen arteko erlazioa kontuan hartuta.

4.3. Eskematikoki, zer da Nafarroako lurraldean egindako gastua?

Beheko taulak 69/2021 Foru Aginduaren 2. artikulua Nafarroako lurraldean egindako gastutzat hartzeari buruz dioena erakusten du:

Taula



5. PROZEDURA

5.1. Zer araudik arautzen du ekoiztetxeak kenkarirako eskubidea izateko jarraitu behar duen prozedura?

Maiatzaren 7ko 69/2021 Foru Aginduak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 65.1. artikulua ezartzen duen bezala, hau xedatzen du:

- Kenkariaren oinarria osatzen duten gastuak.
- Nafarroako lurraldean egiten diren gastuak zehazteko irizpideak.
- Kultura Departamentuak egindako **aurretiko txostenaren edukia eta prozedura**. Txostena kenkariaren betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzkoa izanen da, zergadunak bere aitorpenean/likidazioan sortutako kenkaria kontsigna dezan.
- **Inbertsioa egin dela eta aplikatutako kenkariaren gainerako baldintzak betetzen direla justifikatzeko prozedura**, Kulturako Departamentuan aurkezteko.

5.2. Zertan datza kenkaria izateko eskubidea lortzeko jarraitu beharreko prozedura?

69/2021 Foru Aginduaren 3. eta 4. artikuluetan arautzen da, eta **bi fase** bereizi ditu:

- **Aurretiko txostenaren eskaera (aurrebalidazioa)**
- **Kenkariaren oinarria gerora balidatzea.**

5.3. Zein da aurretiazko txostena edo aurrebalidazioa eskatzearen xedea?

Aurrebalidazioa aurreikuspenetan oinarritzen da, eta haren helburua da segurtasun juridikoa ematea, hots irizpide argi batzuk ezartzea, ekoizleak jakin dezan, gastua aurrebalidazioan adierazitako zenbatekoan eta baldintzetan egiten badu, gastu hori kengarria izanen dela. Baina ezin du kenkaririk finkatu, azkenean egindako gastuaren zenbatekoa txikiagoa bada edo aurrez balidatutako baldintzak betetzen ez baditu.

Aurrebalidazio sistema ikus-entzunezkoen sektorearen ekimenez sartu zen foru araudian. Segurtasun juridikoa handitzen du, irizpide argiak ezartzen baitira ekoizleak jakin dezan gastu bat kengarria izanen den ala ez; hori da, eta ez besterik, aurrebalidazioaren helburua.

5.4. Nola eskatu aurretiko txostena?

Aurretiko txostenaren eskaera ondorengo balidazioa eskatu aurreko edozein unetan egin daiteke.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 65.1 artikuluko kenkariari heldu nahi dioten zergadunek behean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute kulturaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuko zuzendaritza nagusian, eta hark txosten bat emanen du proiektu horrek kenkariaren betekizunak eta baldintzak betetzen dituen argitzeko.

- 
- a) Aurretiko txostenaren eskaera
 - b) Proiektuaren oinarrizko datuak jasotzen dituen formularioa
 - c) **Proiektuaren azalpen memoria**, honako hau bilduko duena:
 - 1) Zinema ekoizpenarentzat edo ikus-entzunezko seriearentzat aurreikusten den izena.
 - 2) Proiektuaren ekoizleen IFZ eta izen soziala.
 - 3) Kenkaria sortuko den aldia edo aldiak.
 - d) **Proiektuari atxikitako gastuen aurrekontua**, navarra.es/eu/hasiera webguneko izapideen katalogoan argitaratuko den ereduaren arabera. Aurrekontuan, kenkariaren oinarria osatzen duten gastuen partidak kuantifikatu beharko dira, kenkaria egin behar den aldi bakoitzerako, eta Nafarroako lurraldean egindako gastuen zenbatekoa zehaztu.
 - e) **Erantzukizunpeko adierazpena**, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak **nazioarteko ziurtagiria eta kultura izaera egiaztatzen duen ziurtagiria** lortzeko eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela dioena.
 - f) **Erantzukizunpeko adierazpena**, adierazteko proiektuak betetzen dituela **% 50ko kenkaria** lortzeko baldintzak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 65.1.a) artikuluan ezarritakoak, hala badagokio.
 - g) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena betetzen direla Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legearen 65 artikuluan ezarritako baldintzak laguntzen intentsitate-muga % 50etik gorakoa izateko, hala badagokio.

Txostena eskatu ondoren, zergadunak sortutako kenkaria kontsignatzen ahalko du bere aitopen/likidazioan, ebatzia izan beharrik gabe.

5.5. Zer eduki jasoko du aurretiko txostenak?

Txostenak adieraziko du proiektuak kenkarirako eskubidea izateko baldintzak betetzen dituen eta % 45eko edo % 50eko kenkaria aplikatzea dagokion, kenkariaren oinarriaren gainean. Proiektuari dagokion intentsitate ehunekoa ere jasotzen du.

Koprodukzioetan, kenkari handitua aplikatzea badagokio, kenkariaren oinarriaren lehen hiru milioi euroen atalasea produktore bakoitzarentzat hainbanatuko da, ikus-entzunezko lanaren kostu osoan duen partaidetza ehunekoaren arabera.

5.6. Noiz ematen da txostena?

Kulturaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak txostena emanen du **hiru hilabeteko epean**, eskaera aurkeztu zenetik zenbatzen hasita.

5.7. Zein da ondorengo balidazioaren edo postbalidazioaren xedea?

Postbalidazioaren xedea da **inbertsioa egiaztatzea eta kenkariaren oinarria zehaztea**.

5.8. Noiz aurkezten da ondorengo balidazioa egiteko eskaera?



Nazionalitate ziurtagiria eskatu eta sei hilabeteko epean, zergadunak inbertsioaren justifikazioa aurkeztu beharko du Ikus-entzunezko Proiektuen eta Proiektu Digitalen Atalean, bai eta kenkaria egiaztatzeko ezarritako gainerako betekizunak betetzearen justifikazioa ere.

Ez da beharrezkoa aurretiko txostenaren eskaera ebatzita egotea ondorengo balidazioa eskatzen den unean.

5.9. Zer dokumentazio aurkeztu behar da ondorengo balidaziorako?

Inbertsioa justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: **ondorengo balidazioaren eskaera, nazionalitate ziurtagiria eta kultura ziurtagiria, filmazioa hasteko eta burutzeko egunen jakinarazpena, Ikus-entzunezko lanaren kopia ematearen frogagiria, Nafarroako Filmotekako Artxiboak emandakoa, eta gainera:**

a) **Ikus-entzunezko lanaren kostuaren adierazpena**, kapituluaren eta partiden arabera zehaztuta, navarra.es/eu/hasiera webguneko izapideen katalogoan argitaratuko den ereduari jarraituz.

Horrez gain, koprodukzioa bada, koproduktore guztiek sinatutako koprodukzio kontratua, zeinean agertuko baitira ekoizle bakoitzak hartutako konpromisoen eta titulartasunaren ehunekoak eta ikus-entzunezko lanaren guztizko kostua.

b) **Auditoretza txosten berezia**, film edo serie osoaren **kostua berrikusteko eta egiaztatzeko**. Honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditoreek egin beharko dute, bat etorriz auditoretzen arloan indarrean dagoen legerian aurreikusitako prozedura arauekin. Horretarako, ekoiztetxearen edo ekoiztetxeen kontabilitate erregistroak aztertuko dira (behar bezala eginbideturik behar dute), eta kontuan hartuko dira ikus-entzunezko lana ekoizteko egin diren gastuen egiaztagiria guztiak.
- Honako hauek jaso beharko ditu: egindako lanaren irismenaren deskribapena; egindako prozedurei buruzko aipamena edo horien deskribapena (eranskin batean); auditorearen ondorioa, filmaren edo seriearen kostuen egitura eta kalkulua foru agindu honetan ezarritakoaren arabera prestatu direla adierazten duena; auditorearen izena edo sozietate izena; harremanetarako datuak; sinadura eta data. Lanaren irismena laginketa bidez egiten bada, aztertutako ehunekoa ez da % 85etik beherakoa izaten ahaliko, langileen gastuen % 100 aztertuko delarik.

Ikus-entzunezko lana hainbat ekoiztetxek egin badute, auditoretza txostena bakarria izanen da.

Txostena egitean, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren maiatzaren 7ko 69/2021 Foru Aginduaren 1. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatu beharko dira, honako gai hauek berariaz adierazita:



1) Lan kontratuak, merkataritza kontratuak eta eskubideak eskuratzearekin lotutakoak, bai eta kontratu horiei dagozkien dokumentuak eta fakturak ere.

2) Fakturak eta froga balio baliokidea duten gainerako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, eta, hala badagokio, zerbitzuen edo horniduren kostuak egiaztatzen dituzten kontratuak.

Bereziki, egiaztatzeko gastuek badutela lotura ikus-entzunezko lanarekin, haren izenburua agertu beharko da honako gastu hauekin zerikusia duten fakturretan: eszenografia, dekorazioa, storyboard-a, modelatuak eta postprodukzio gastuak –muntaketa, ikusizko efektuak, musika, irudi sintetikoen ekoizpena eta sorkuntza, soinu postprodukzioa, laborategia, postprodukzioko negatiboa eta kreditu tituluak–.

3) Bidaiak eta joan-etorriak justifikatzeko txartelak, fakturak eta froga balio baliokidea duten gainerako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak.

4) Azpikontratazioaren bidez fakturatu diren gastuen zerrenda eta kontratisten identifikazioa.

5) Nafarroan egin diren eta kenkariaren oinarriaren parte diren gastuen egiaztapena, bai eta gastu horiek kenkariaren oinarriari dagokionez duten ehunekoa ere.

6) Onartutako laguntza publikoen eta dirulaguntzen zenbatekoa.

7) Pertsona edo entitate lotuengandik eskuratutako ondasun edo zerbitzuen zerrenda, loturaren egoera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 28. artikuluaekin bat, eta ondasun edo zerbitzu horiek entitate lotuan duten kostuaren justifikazioa.

8) Koprodukzio finantzatuaren kasuan, kenkaria aplikatuko duen koproditoreak jasotako ekarpena, kasua bada.

- c) **Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 65.6 artikuluan ezarritako betebeharrak** (material grafikoari eta ikus-entzunezkoen buruzkoak eta logotipoak txertatzeari eta Nafarroako Filmotekari kopia emateari buruzkoak) bete direla egiaztatzea, www.culturanaavarra.es/eus webgunean zehaztutako moduan.
- d) **Ekonomia intereseko talde bat (EIT) bada, erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena ekonomia intereseko taldea osatzen duten erakunde guztiak foru araudiaren eraginpean daudela, kenkaria sortzen den zergaldien azken datan.**
- e) Koprodukzioetan: **koproditore guztiek sinatutako azken koprodukzio kontratua**, zeinean agertuko baitira ekoizle bakoitzak hartutako konpromisoen eta titulartasunaren ehunekoak eta ikus-entzunezko lanaren guztizko kostua.
- f) Nazioarteko koprodukzioetan: **nazioarteko koprodukzioa onartzeko ebazpena, Zinemagintzaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) emandakoa**



5.10. Zein epetan ebazten da ondorengo balidazioaren eskaera?

6 hilabeteko epean, eskabidea aurkezten denetik. Aukera dago inbertsioen justifikazioa aurkeztu ahal izateko prozedura eteteko, 6 hilabeteko epean egin ez badira baina errodalea burutu eta 24 hilabeteko epean egiten badira.

5.11. Zer gertatzen da ondorengo balidazioaren fasean zehaztutako kenkariaren oinarria ez badator bat autolikidazioan kendutako zenbatekoarekin?

Aurrebalidazio fasean zehaztutako kenkariaren oinarria aurreikuspen bat da. Behin betiko kenkariaren oinarria ondorengo balidazioaren fasean zehaztutakoa da. Ondorengo balidazioaren fasekoa txikiagoa bada, aurreikuspena ez datorrelako bat benetan egindako inbertsioarekin, edo araudiak eskatutako irizpideak edo baldintzak betetzen ez direlako, zergadunak, behin betiko kenkaria jakinarazten den zergaldiko kuotaekin batera, bidegabe aplikatutako kenkariari dagokion kuota osoa eta berandutze-interesak sartu beharko ditu. Ez dago inolako zigor ekonomikorik autolikidazioetan kenkari gisa adierazitako zenbatekoa dagokion behin betiko kenkaria baino txikiagoa bada.

5.12. Zer gertatzen da zergadunak ondorengo balidazioaren epea eteten badu justifikazio berriak aurkezteko?

Kultura Departamentuak kasu horietarako ezarriko du zergadunak auditoria txosten berezi berri bat aurkeztu behar duela, 69/2021 Foru Aginduak 4.b) artikuluan ezartzen duen edukiarekin.

5.13. Aurretiko txostena egiteak ba al du eraginik ekoiztetxearen finantziazioan?

Foru aginduak 65.1 artikuluko alderdi jakin batzuk bakarrik garatzen ditu. Finantzatzailearen kenkaria eremu horretatik kanpo geratzen da, baina finantzatzaileak ekoizleari legokiokkeen kenkaria baino ezin duenez aplikatu, aurretiazko txostenak eragiten dio, jakina, ekoizleak eskatu egin behar izan baitzuen kenkaria aplikatzeko.

65 bis artikulua aukera ematen du proiektuaren bizitzan zehar beste finantzatzaile batzuk sartzeko.

5.14. Nola egiaztatu ekoizpena espainiarra dela?

Aldez aurreko baldintza da ekoizpena espainiarra izatea. Ekoizpen espainiarra dela egiaztatzeko, ICAAk dagokion baldintzak hartuko ditu kontuan.

6. LAGUNTZAREN INTENSITATEA



6.1. Zer da laguntzaren intentsitatea zerga pizgarrian?

Nafarroako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 65. artikuluan araututako kenkaria gehi ikus-entzunezko produkzioagatik jasotako gainerako laguntzak, **diruz lagundu daitekeen kostuaren gainean**.

6.2. Ba al dago mugarik kenkariaren zenbatekoan?

Oro har, kenkariaren zenbatekoa **ez da 5.000.000 eurotik gorakoa izaten ahalko, eta laguntzaren intentsitateak ez du gainditzen ahalko diruz lagundu daitezkeen kostuen kostuaren % 50**.

Nafarroako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 65.3 artikulua ezartzen du muga hori honaino handituko dela:

- a) Ehuneko 85, 1.000.000 euro baino gutxiagoko ekoizpen kostua duten film labur edo proiektuetarako.
- b) Ehuneko 80, zinema aretoetan proiektatuz komertzialki ustiatzeko, gehienez ere bi film luze bakarrik edo beste norbaitekin zuzendu dituen zuzendari baten ekoizpenak direnean, haien ekoizpen aurrekontua 1.500.000 eurotik beherakoa bada.
- c) Ehuneko 80, osorik euskaraz filmatutako ekoizpenak direnean.
- d) Ehuneko 80, 33ko desgaitasuna edo handiagoa, organo eskudunak aitortua, duten pertsonen bakarrik zuzendutako ekoizpenak direnean.
- e) Ehuneko 75, emakumezko zuzendariak bakarrik egindako ekoizpenak direnean.
- e) Ehuneko 75, kultur eta arte balio berezia duten eta finantzaketa laguntza berezia behar duten ekoizpenak direnean, foru agindu bidez edo dagozkien laguntza deialdietan ezartzen diren irizpideen arabera.
- g) Ehuneko 75, dokumentalak direnean.
- h) Ehuneko 80, ekoizpen kostua 5.000.000 eurotik beherakoa duten animazio lanak direnean.
- i) Ehuneko 60, Europar Batasuneko estatu batek baino gehiagok finantzatzen eta Europar Batasuneko estatu bat baino gehiagoko ekoizleen parte-hartzea duten mugaz gaindiko ekoizpenak direnean.
- j) Ehuneko 60, Iberoamerikako herrialdeekin egindako nazioarteko koprodukzioak direnean.



Koprodukzioetan, 5.000.000 euroko kenkariaren gehieneko muga produktore bakoitzak ikus-entzunezko lanaren kostu osoan duen partaidetza ehunekoaren arabera hainbanatuko da.

- erakusteko edo emateko **egokitzapen-gastuak**
- **lana babesteko gastuak**
- **kopiak egiteko gastuak**
- ikus-entzunezko lanaren kostua egiaztatzeko **auditoretza txosten berezia**

denbora eta zenbateko mugak kontuan hartu gabe.

Nazioarteko koprodukzioak badira, ikus-entzunezko lanaren kostuak barne hartuko du atzerriko zatia.